

# Vatikanoko II. Kontzilioaz haratago

JOXE ARREGI\*

Askok salatzen dute, arrazoiz salatu ere, Vatikanoko II. Kontzilioaren ukapena eta traizioa gertatzen ari direla eliza katoliko osoan Vatikanoko Kuriaren eraginez eta gotzainen eskutik. Inboluzioa edo atzerabidea aspaldi abiatu zen, duela 32 urte, Juan Paulo II. arekin. Eta Benedikto XVI. arekin are bizkorrago eta kementsuago jarraitzen du aurrera.

Atzerabidea aurrera, alegia. Eta gaitz-erdi litzateke, aurrerabidean urrutira iritsiak bagina, baina ez dut uste. Nago, Vatikanoko II.a motz gertatu zela, berrikuntza-asmoan erdibideraino bakarrik iritsi zela. Eta erdibidetik abiatu atzera bagoaz, horrek esan nahiko luke oso atzera goazela.

Vatikanoko II. Kontzilioak, mendeetako atzerapena gainditurik, mundu modernoaren parera iritsi nahi izan zuen, eta erdizka bakarrik lortu; bitartean, ordea –Kontzilioa eta ondorengo urteetan– kultura berri bat, “posmodernitate”a-edo, gorpuzten joan zen Europan eta Mendebaldean oro har, eta

Kontzilioak ez zion kultura berri honi inolako erantzunik eman; alderantziz, Eliza, posmodernitateara egokitu beharrean, premodernitateara itzultzen ari da, Kontzilioak emandako aurrerapausoak atzera deseginez. Hortxe gaude, gaurko kulturatik bi arotara, bi eoitara. Lekutara gaude!

## 1. Mundu modernoarekin adiskidetu

Goazen une batez 1959aren hasierara. Munduko II. Gerrako hekatontzetik irten berria zen Europa, eta mundu osoa berarekin. Egia da, bai, gerra beroari gerra hotzak jarraitu ziola bloke komunistaren eta bloke kapitalistaren artean, mundua tragikoki banatua zegoela, herrialde kolonizatuen zoritxarreko historia begi-bistan ageri zela, apokalipsi nuklearra benetako eta ikaragarritzko mehatxua zela.

Hori guztia halaxe zen, baina haize on baikorrak zebiltzan Mendebaldean. Modernitatea munduaz nagusitzen ari zen<sup>1</sup>. Zientziak eta teknologiak paradi-

\* Deustuko Unibertsitateko irakaslea. Arroa Behea

<sup>1</sup> “Modernitatea” esatean, batez ere esan nahi da: giza eskubideak, gizaki bakoitzaren burujabetasuna, askatasuna, askapen unibertsalaren ametsa, arrazoimen kritikoa, zientzia eta teknologiarekiko fedetsua, etorkizunarekiko baikortasuna...

sua esku-eskura eskaintzen zuten. Herri kolonizatuak burujabetasunaren alde borrokan ari ziren. Askatasunak posible zirudien. Anaitasuna eta berdintasuna ere ziur iritsiko ziren.

Eta Eliza katolikoa zer? Eliza katolikoak ezin zuen, esperantzazko aire berriei muzin eginez, albo batera gelditu. Bazirudien, ordea, Erdi Aroan tinko itsatsia geratua zela. Eliza Vatikanoa zen, bere makineria guztiarekin, hain boteretsua eta anakronikoa. Eliza Vatikanoa zen, eta Vatikanoa gaztelu gotortua zen, historiako haize guztien aurrez aurre, Modernitateko bandera guztien aurka hertsiki itxita.

Mundu modernoaren usaina zekarkeen ooren kontra mintzatua zen Vatikanoa, eta mintzatzen jarraitzen zuen: Ilustrazioa, Iraultza frantsesa, zientziak, errebindikazio sozialistak... Bibliaren irakurketa historiko-kritikoren aurka, eboluzioaren teoriaren aurka, trenbideen aurka, gas bidezko argiztapenaren aurka, zubi zintzilikarien aurka, penizilinaren aurka... azaldua zen. Descartes, Kant-en *Arrazoi-men Hutsaren Kritika*, baita *Larousse Dictionnaire* ere... liburu debekatu eta sakrilegoen Indizean sartuak ziren. 1864an, zerrenda (*Syllabus*) bat osatua zuen Pio IX.a aita santuak, mundu modernoko 80 erroreak deabruaren beraren doktrina bezala kondenatzen zituen: Estatua eta Elizaren arteko bereizketa (55. zenb.), erlijio-askata-

suna (77. zenb.), kultu-askatasuna (78. zenb.), adierazpen- eta prentsa-askatasuna (79. zenb.), ezkontza zibila... “Erromako Pontifizeak aurrerapenarekin, liberalismoarekin eta zibilizazio modernoarekin adiskidetu ahal duela eta behar duela, onartu ahal dituela eta behar dituela” zioen baieztapena ere kondenatua zuen (80. zenb.). “Modernismoaren aurkako zina” egitera behartua zegoen klero guztia 1910etik aurrera.

Gaitz guztien ama zen modernitatea. Beraz, Eliza katolikoak osorik eta zorrotz kondenatu zuen, inolako ñabardurarik gabe, eta Vatikanon babestu zen. Eta ziurrago babesteko, botere guztiarekin jantzi zuen aita santua. Ziurtasuna hobeto lotzeko, aita santuaren botere absolutua eta hutsezintasuna dogma aitortuak zituen Vatikanoko I. kontzilioak. Gotorleku setiatu eta jazarria zen Vatikanoa, baina han zegoen aita santu jainkotua, egia osoaren eta on bete bakarraren berme gorena lurrean.

Egoera horri, ordea, ezin zitzaion gehiago eutsi, eta teologo asko ari ziren bestelako jarrera baten eske: “gotorlekuak birrindu” egin behar ziren (H. Urs von Balthasar), Eliza mundu modernora zabaldu, fedea hizkera ulergarri batean ulertu eta iragarri. Baina Vatikanoren gaitzespenek behin eta berriro itotzen zituzten saiakera guztiak. Harik eta halako batean, 1959ko urtarrilaren 25ean, aita santu

zahar eta karismatiko batek, Joan XXIII.ak, kontzilio berria egin behar zela iragarri zuen ustekabeen. Denak aho bete hortzekin utzi zituen.

Eta Kontzilioko sarrera-hitzaldian, 1962ko urriaren 11n, mundu modernoaren gaitzak eta mehatxuak etengabe aldarrikatzea maite zutenen aurka hitz egin zuen, “hondamen-igarle” deituz. Esan zuen: “*Maiz iristen zaizkigu –hau geure eguneroko ministerio apostolikoan egiaztatzen dugun gauza da–gure entzumena mintzen duten ahotsak. Ezbai gabe erlijioaz kezkatu-rik dauden pertsonak dira, baina ez dituzte gauzak alderdikierarik gabe eta zuhurtasunez epaitzen. Izan ere, pertsona hauek, oraingo gizartearen egoeran, zorigaitzak eta hondamendiak ikusteko baizik ez dira gai. Gure garaia, aurrekoekin alderatuz gero, askoz eta txarragoa dela esan eta esan ari dira. Historiatik, bizitzaren irakasle den historiatik, ezer ikastekorik ez bagenu bezala portatzen dira. Aurreko Kontzilioen garaian gauza guztiak ongi zihoazela uste dute: kristau-doktrina, moralak, Elizari zor zaion askatasuna. Guk uste dugu, munduaren azkenaren aurrean bagina bezala beti txarraren iragartzen duten zorigaitzen profeta hauekin ez dagoela bat etortzerik. Aitzitik, oraingo gertaeren joanean, gizakiak gauzen ordena berri batean sartzen direla dirudienean, Jainkoaren probidentziaren asmo misteriotsuak antzeman behar dira. (...).*”

*XXI. Kontzilio Ekumeniko honek (...) bere osotasunean helarazi nahi du doktrina katolikoa, ezer gutxitu ez okertu gabe. Doktrina hau, zailtasun eta borrokak gorabehera, gizadiaren ondare izatera iritsi da. Hau, ezbairik gabe, ez da izango guztien gogoko, baina borondate oneko gizaki guztiei eskaintzen zaie altxor handizat. Altxor baliotsu hau ez dugu gorde bakarrik egin behar, antzinakoaz soilik arduratuko bagina bezala, baizik eta geure garaiak eskatzen digun eginkizunari pozik eta beldurrik gabe ekin nahi diogu, eta Elizak hogeit hamar mende hauetan egin duen bidean aurrera jarraitu. (...). Gauza bat baita fedearen gordailua edo doktrina sakratuaren baitako egiak, eta beste gauza bat dira egia horiek iragartzeko gisa eta moldea, euren zentzua eta esanahia errespetatuz”.*

Horra, tonua emana zegoen. Sinfonia berria has zitekeen. Ez zen, halere, erraza izan, eragozpenak egundokoak baitziren. Izan ere, Vatikanoko kurietako indarrak kontserbadoreen esku utzi zituzten Kontzilioaren prestaketa, gaien hautaketa, gaien azterketarako eskemen elaborazioa. Modernitatearen aurreko eta kontrako teologian oinarrituak zeuden aurre-eskema gehien-gehienak.

Hori ez zen harritzekoa, noski. Baina Kontzilioa hasi orduko, partaideen arteko tirabira gogorren ondoren,

eskema guztiak banan-banan erretiratuak izatea, hori bai izan zela harriztekoa.

Eztabaidak eztabaida, liskarrak liskar, honako kontsigna hau atera zen nagusi: “Mundu modernoarekin adiskidetu beharra dago”. “Aggiornamento” (“eguneratzea”, “gaurkotzea”) zen gehien errepikatzen zen hitza.

## 2. Ikuspegi teologiko berrietarantz

Vatikanoko II. Kontzilioak ez zuen dogmatikoa izan nahi izan, “pastorala” baizik. Hau da: ez zituen fedeko dogmak formulatu ez esplikatu nahi izan, Elizaren erakundeak eta mintzamoldeak eguneratu eta egokitu baizik. Premiazkoena ez zen egiak zehaztea, gaurako munduarekin adiskidetzea baizik, gizarte modernoaren baitan presentzia berreskuratzea, kristau mezua ulergarri eta erakargarri bihurtzea, mundu berri-tuari berri ona iragartztea. Horixe zuen izan ere funtsean bere bokazioa. Munduak ez zuen batez ere doktrina behar, arnasa baizik, presentzia eta hurbiltasun adore-emailea, kontsolatzailea.

Horretarako, lehenengo eta behin, mundu modernoari sinpatia handiz begiratu behar zitzaion, bai bihotzez eta bai buruz. Eta horrek, jakina, teologia berritzea eskatzen zuen, berritzen saiatzea bederen. Kontzilioa saiatu zen. Bere idazkirik inspiratuenetako batean,

dio: “*Oraingo gizon-emakumeen poz eta itxaropenak, tristura eta larritasuna, batez ere behartsuenenak eta nahigabetu guztienak, Kristoren ikasleen poz eta itxaropen, tristura eta larritasun ere badira*” (*Gaudium et Spes 1*). Erabateko bira iradokitzen zen hor, guztizko jarrera berria, nahiz eta hitzez ez zen erabat esplizitatzen: munduaren zortea bere egiten du Elizak; mundua ez da Elizarentzat, baizik eta Eliza munduarentzat. Eliza ez da ageri ama eta maistra bezala, arreba bezala baizik. Senideen senide mundu beraren baitan. Eliza ere mundua da. Horra, bada, lehenengo nobedadea: munduarekiko sinpatiazko eta elkartasunezko begirada.

Kontzilioaren beste nobedade nagusietako eta gutxien espero zenetako bat erlijio eta kontzientzia askatasuna izan zen, Pio IX.ak 100 urte lehenago kondenatua: “*Vatikanoko Sinodo honek gizakiak erlijio-askatasunerako eskubidea duela adierazten du. Askatasun hau honetan datza: gizaki guztiek bortxatik aske egon behar dutela; bai pertsona banakoaren, bai giza taldearen eta baita edozein giza botereren bortxatik ere; eta, horrela, hain zuzen ere, erlijio-arloan ezin dezake inork beste inor bere kontzientziaren aurka jokatzerantzera bortxatu, ezta inori bere kontzientziari dagokionez jokatzea eragotzi ere, pribatuan nahiz jendaurrean, bakarrean nahiz beste batzuekin elkarturik, bidezko mugen barruan*” (*Digni-*

*tatis humanae* 2). Azken mendeetako eliz tradizioa haustea esan nahi zuen horrek egiazki. Adierazpen hori eten bat da argi eta garbi Elizaren mende askotako historian. Eta, hain juxtu ere, ez ziren gutxi izan Kontzilioa puntu horretan heresian jausi zela pentsatu zuten gotzainak, eta zismaren eta kontra-kontzilio baten mehatxua egin zuten. Denborarekin betekoa da mehatxua (Lefebvre monsinorearen mugimendua...).

*Erlijio ez-kristauei buruzko Adierazpena (Nostra Aetate)* izan zen irensten zailenetakoa gertatu zen testua. Gaur egun oso motz geratzen zaigu, baina garai hartan deabruaren beraren obra iruditu zitzaizen gotzain askori. Honela dio sarreran: “*Herri guztiek komunitate bakarra osatzen dute, jatorri berbera dute, Jainkoak gizadi guztia lurbira osoan bizitzen jarri baitzuen. Azken helburua ere bat bera dute: Jainkoa. Honen probidentzia, ontasun-agerpena eta salbamen-asmoak guztiengana zabaltzen dira, hautatuak Hiri Santuan, zeina Jainkoaren distirak argituko baitu eta zeinean herrian haren argitan ibiliko baitira*” (*Nostra Aetate*, Sarrera). Halatsu gertatu zen beste zenbait baieztapenekin: gaur bel-durtiegi iruditzen zaizkigun iritziak orduan askori ausartegi iruditzen zitzaizkien; gaur kontserbadoreegi gertatzen zaizkigunak orduan berritzaileegi ziren. Guztiarekin ere —eta hau da harrizkekoa—, tesi berritzaile asko onar-

tu zituen Kontzilioko gehiengoak. Hona aipagarrienak, aipatu berriak batzuk: gotzainen “kolegialitatea” aita santuaren botere absolutuaren aurrez aurre (hau da, gotzain guztiak, Erromakoa barne, elkarren pareko direla eta pareko kideen “collegium” edo elkarte bat osatzen dutela elkarrekin) (*Lumen Gentium* 22), laikoen promozioa Elizaren barnean (*Apostolicam Actuositatem*), kontzientzia- eta erlijio-askatasunaren onarpena (*Dignitatis humanae*), beste eliza kristauen aitortpena, Bibliaren historikotasunaren onarpena bere errore eta mugekin, erritual liturgikoen berriztapena tokian tokiko hizkuntzen erabilerarekin.

Esan daiteke, beraz, Kontzilioak berriztapen teologiko sakon baten alde egin zuela apustu oro har, garaiak eskatzen zion punturaino ezertan iritsi ez bazen ere. Galtzaile izan zirelako sentipenarekin ez ezik, egiazko fedea traizionatu zelako irudipen garbiarekin atera ziren Kontziliotik gutxiengo tradizionalistako gotzainak, Kontzilio aurreko kuria vatikanoarretan zeudenak batik bat. Errebantxarako tenore proposaren zain ere gelditu ziren batzuk.

### 3. Derrigorreko orekak eta kontraesanak

Halere, diodan berriro, teologia berri koherentea formulatzetik oso urrun geratu zen Vatikanoko II. Kontzilioa. Ez daiteke inolaz esan para-

digma teologiko berri baten alde egin zuenik. Aitzitik, “elkarren aurkari eta aurkako ziren jarrearen arteko oreka eta harmonia beharraren ondorio izan ziren Kontzilioko idazkiak”<sup>2</sup>. Formulazio asko anbiguoak dira. Eta neurri batean, hain zuzen ere, anbiguotasun eta argitasun-gabezia horrexetaz baliatuko dira, Joan Paulo II.aren eta Benedikto XVI.aren aitasantutza-aldietan, ikuspegi berriei bideak zabaldu ordez teologia zaharra berriro ezarri nahi dutenak. Horixe da urteotan gertatzen ari dena.

Aipa ditzagun Kontzilioko dokumentuetan ageri diren inkoherentzia nagusietako batzuk:

1) *Gotzainak eta aita santua*: alde batetik dio gotzainek eta elkarren pareko kideen elkarte (*collegium*) bat osatzen dutela; bestetik, berriz, aita santuak botere absolutua duela guztien gain, eta nahi duenean erabil dezakeela (*Lumen Gentium* 22an esaten dira gauza biak)<sup>3</sup>.

2) *Laikoen lekua Elizan*: Elizari “Jainkoaren herri” deitzen zaio *Lumen*

*Gentiumean* eta, aurre-eskeman proposatzen zen ordena aldatuz, kristau herriaz hitz egiten du aurrena (II. kapitulua) eta Hierarkiaz gero (III. kapitulua), nolabait aditzera emanez herria dela garrantzizkoena, elizkide guztiak neba-arreba direla eta gotzainak eta aita santua fededun-herriaren ordezkari; baina, laikoen garrantzia azpimarratzen duen arren, Vatikanoko II.aren eliz eredu, azken batean, oso klerikala da, Eliza hirutan banatzen du (klerikoak-erlijiosoak-laikoak), laikoak “munduko zereginetara” mugatuz, botere guztia klerikoen esku utziz eta ikuspegi demokratiko erabat baztertuz (hierarkia “Kristoren ordezkari” da, ez “herriaren ordezkari”, batak bestea ukatuko balu bezala). Garbi dago, beraz, Kontzilioan bi eliz eredu daudela: herri eta elkarte bezala ikusten duena bata, eta hierarkia bezala ikusten duena bestea. Eta gertatzen da, bakoitzak nahi duen ereduari heltzen diola, eta gaurko hierarkiak eredu hierarkikoa bakarrik ematen duela ontzat.

3) *Eliza katolikoa eta beste elizak*: ekumenismoaren arloan ere inkohe-

<sup>2</sup> S. Madrigal, *Karl Rahner y Joseph Ratzinger. Tras las huellas del Concilio*, Sal Terrae, Santander 2006, 60. or.

<sup>3</sup> Aipatzekoa da *Lumen Gentium*eko III. Kapituluaren hasieran Paulo VI.a aita santuak, Kontzilioko gotzainekin adostu eta kontsultatu ere egin gabe, ezarraziz zuen “Ohar argigarria”, non esaten baita gotzainen elkarte edo “collegium” delakoak duela botere guztia, baina “collegium” hitzak ez duela “berdinen elkarte” esan nahi eta botere osoa, azken batean, aita santuaren esku dagoela. Baieztapen horiek elkarrekin uztartu ezinak dira, eta elkarren aurkako bi eliz eredu iradokitzen dituzte. *Lumen Gentium* 27an esaten da gotzainak ez direla aita santuaren ordezkari, Kristoren ordezkari baizik, baina “Ohar argigarriak” eta 1983ko Zuzenbide Kanonikoak aita santuaren ordezkari bihurtzen ditu azken batean.

rentzia handia dago. Baieztapen batzuek adierazten dute eliza ez-katolikoak ere egiazko Eliza direla; beste batzuek, ostera –gehienek, egia esan–, Erromako Eliza Katolikoa bakarrik dela egiazko Eliza bakarra. Eztabaida handiak eragin zituen eta eragiten ditu oraindik ere itxuraz munta gutxiko esamolde batek: *subsistit in. Lumen Gentium* 8an esaten da Eliza katolikoa “bizirik dagoela” (*subsistit in*) Kristoren Eliza, apropos zuzenduz aurreko erredakzioa, non esaten baitzen Eliza Katolikoa (bakarrik) “dela” (est) Kristoren Eliza. Alde handia dago batetik bestera, baina lehenengo esaldia –alegia, Eliza katolikoa Kristoren Eliza dela– bigarrenaren zentzuan –alegia, Eliza katolikoa bakarrik dela Kristoren Eliza– ulertzen du gaurko hierarkia katolikoak (ik., esate baterako, 2000. urtean Fede-Doktrinaren Kongregazio Santuak emandako *Dominus Jesus* adierazpena).

4) *Kristautasuna eta beste erlijioak*: gauza beretsua gertatzen da hemen ere. Arestian aipatu den *Nostra Aetate* Adierazpenaren hasierak iradokitzen du inor ez dela Jainko-misterioaren jabe eta, beraz, kristautasunak ez dezakeela bere burua beste erlijioen gainetik koka; nonahi esaten da, ordea, kristautasuna bakarrik dela osoki, Jainkoak halaxe nahita, egiazko erlijio bakarra (eta horixe berresten du irmoki aipatu berria den *Dominus Jesus* adierazpenak, pluralismo ooren aurka). Erlijio

ez-kristauei buruz ere, Kontzilioa erdibidean gelditu zen. Inork espero zuen baino gehiago eman zuen, baina gaur beharko litzatekeen baino gutxiago.

#### 4. Kontzilioa gainditurik

Hainbat oztopo eta eztabaidaren artean, Kontzilioko kideak borondatarik onenaz hurbilduak ziren industria aroko gizaki modernoarengana. Gotzain gehienak adoretzu eta optimista atera ziren Vatikanoko II. Kontzilitiotik, garaiko gizartearekin eta kulturarekin adiskidetzeko pronto. “Mugarik gabeko sinpatiak hartu du dena”, dio Kontzilioaren amaierako mezuak. Eliza udaberri betean sartzera ziola iruditzen zitzaien.

Eliza modernitatearekin adiskidetzeko ahaleginetan abiatu zen bitartean, ordea, beste garai eta paradigma kultural bat ari zen Europan eta Mendebaldean zitzu bizian zabaltzen. 1968ko estudianteen mugimenduek, bere kontraesan eta guzti, mundu berri baten argiak piztu zituzten. Baina, egia esan, ez zen erraza mugimendu haien norabideaz zehazki jabetzea eta, nolana ere, Elizak ez zien igarri. Ez zen ohartu Europako gizarte modernoan sekulako aldaketa ari zela gertatzen, hau da, modernitatea posmodernitatea deritzan ari berri baterantz ari zela bira egiten.

“Posmodernitatea” ez da agian izenik egokiena. “Transmodernitatea” ere

deitzen zaio, edo “modernitate gara-tua” edo “modernitate erradikala”. Osagai ezagunak ditu, eta funtsezkoenak aipatuko ditut. Alde batetik, modernitateko amets handiek porrot egina zuten, Munduko bi Gerrek argi erakusten zutenez, utopia guztiak kinka larrian zeuden eta etorkizunari buruzko zalantzak ugalduz zihoazen. Bestetik, zientziak garatu ahala, ziurtasunen orde zurgabetasuna ari zen handitzen: zientziak, azken batean, ez zuten munduaren ikuspegi bat besterik ematen, eta ikuspegi guztiak aldakorak eta partzialak ziren, baita zientziak berak ere. Telebistak inoiz ez bezalako informazio-multzoa eskaintzen zuen zuzenean mundu osoan (eta zer esan handik laster zabalduko den eta guri bete-betean eragiten digun Internetaz?). Beraz, neurrigabeko ezagutzaren eta informazio globalizatuaren aroan, etengabeko berrikuntzaren aroan eta menderaezineko pluralismoaren aroan sartzen ari zen Europako eta Mendebaldeko gizartea.

Informazioaren, ezagutzaren eta berrikuntzaren kulturak –“posmodernitate” deitu edo bestela deitu– ziurtasun eta teoria handi guztien amaiera, erakunde guztien itzeleko gainbehera, tradizioaren krisia, funtsezko aniztasuna eta ziurgabetasuna zekartzen berekin. Eta horrek, jakina, erakunde erlijioso guztien erroak sekula baino gehiago astindu zituen Kontzilioa amaitu eta gutxira.

Ondorioz, amesturiko udaberria ez, baizik eta “Elizaren negua” (K. Rahner) iritsi zen. Gizartea Elizatik urruntzen joan zen andanan. Elizak mortu eta seminarioak hutsik geratzen hasi ziren. Europako mendebaldeko gizartea erabat sekularizatzen joan zen. Baina sekularizazioak ez du esan nahi erlijioa desagertzen denik, baizik eta erakunde erlijiosoek (batez ere katolikoek) erakunde sozialen gain zuten nagusigoa galtzen dela. Hots, sekularizazioak laikotasuna esan nahi du. Sineskizunen eta hautu etikoen ustezko adostasuna amaitzen dela, eta iritzi eta baloreen funtsezko aniztasuna hedatzen dela noranahi.

Eliza kristauen baitan ere –Eliza katolikoaren baitan batik bat– gauza bera gertatzen zen: tradizioko ziurtasun guztiak eztabaidan jartzen ziren nonahi; ildo eta korrante desberdinak, maiz elkarren aurkakoak, sortu ziren.

Horiek horrela, etorkizuna gero eta beltzago ageri zen. Ezbaiak gero eta larriago ziren. Kontzilioarekin konpondu orde z, Elizaren krisia sakontzen eta zabaltzen ari zen. Zer ari ote zen gertatzen? Zer erremedio ote zegoen?

## 5. Bi diagnostiko eta bi erremedio: Rahner eta Ratzinger

Diagnostikoaren baitan dago erremedioa. Eta hor hasi ziren berriro arazoak. Alegia, zein ote zen gaitza? Horra gakoa. Eta berehala agertu ziren krisia-



ri buruzko bi diagnostiko, bata bestea-  
ren kontra. Kontzilioko eta Kontzilio  
ondoko teologo eta eliz pertsonaia  
ospetsuenetako bi har ditzakegu diag-  
nostiko bikoitz eta kontrajarri horren  
iruditzat: Karl Rahner jesuita eta  
Joseph Ratzinger apaiz bavariarra, gaur  
Benedikto XVI. aita santua. “Kontzilio  
osteko Elizaren bilakaera juzgatzeko  
eta berari aurre egiteko bi paradigma  
pertsonifikatzen dituzte” biek<sup>4</sup>.

Kontzilioko dokumentu garrantzi-  
tsuen eta eztabaidatuenetako batzuen  
elaborazioan lankide izan ziren biak.  
*Nazioarteko Batzorde Teologikoko*  
kide ere batera izan ziren 1969tik  
1974ra, baina batzorde horrexen baitan  
egin zuten elkarrekin talka beste inon  
baino gogorrago eta nabariago. Eta  
bost urte egin ondoren, Rahner-ek utzi  
egin zuen batzordea.

Bai Kontzilio garaian eta bai ondo-  
ren, Rahner berrikuntzaren alde agertu  
zen beti. Ratzinger-ek, ordea, hara zer  
idazten duen Kontzilioaz: “Gero eta  
gehiago zegoen inpresioa, Elizan ez  
dela ezer egonkor, gauza guztiak berri-  
kus daitezkeela. Dena aldatu eta edozer  
gauza bere erara iraul zezakeen eliz  
parlamentu baten antzekoa zirudien  
Kontzilioak”<sup>5</sup>.

Rahner-en iritzian, Europako seku-  
larizazio-prozesua eta elizen hustea  
Kontzilio garaian eta ondoren gertatu  
ziren, baina ez ziren izan ez Kontzi-  
lioaren ez osteko bere aplikazioaren  
ondorio. Ratzinger-entzat, aldiz, Kon-  
tzilioa bera eta Paulo VI.aren aitasantu-  
tza-aldian (1963-1979) abiatutako berri-  
kuntzak izan ziren, besteak beste, seku-  
larizazioaren eragile, kristau-identitatea  
lausotu zutelako eta kristauen artean  
ziurgabetasuna erein zutelako. 1985ean,  
elkarrizketa gisa emandako *Fedeari  
buruzko Txostena* idazki sonatu eta era-  
bakigarrian<sup>6</sup>, J. Ratzinger-ek –garai har-  
tan Fede-Doktrinaren Kongregazio  
Santuko Prefektu zenak– esaten zuen  
Elizak Kontzilioari traizioa egin ziola,  
eta “benetako Kontzilioa” berreskuratu  
behar zela, tradizioarekiko jarraipenean,  
esan nahi baitzuen: Vatikanoko I. Kon-  
tzilioaren (1870) eta Trentokoaren  
(1545-1563) jarraipenean.

Rahner-ek, azken-azkeneraino, Kon-  
tzilioaren espiritu berritzailea errebindi-  
katu zuen, dokumentuen letraz haratago,  
zeren eta letra, azken batean, inguruabar  
historikoen eta gizakien arteko konpon-  
keten emaitza baita. Ratzinger-ek, ordea,  
Kontzilioko dokumentuen letra idatziari  
lotu beharra azpimarratu zuen: gainera-  
koak “zentsugabekeriak” dira<sup>7</sup>.

<sup>4</sup> S. Madrigal, *Karl Rahner y Joseph Ratzinger*, o.c., 14. or.

<sup>5</sup> J. Ratzinger, *Mi vida. Recuerdos (1927-1977)*, Encuentro, Madril 1997, 132. or.

<sup>6</sup> J. Ratzinger, *Informe sobre la Fe*, BAC, Madril 1985.

<sup>7</sup> J. Ratzinger, “El lugar de la Iglesia y de la Teología en el momento actual”, in *Teoría de los principios teológicos. Materiales para una teología fundamental*, Herder, Bartzelona 1985, 468. or.

Rahner-entzat, Kontzilioa “hasiera berri” bat izan zen, azken 100 urte-erako lau Pio aita santuen –Pio IX. arengandik Pio XII. arengana, 1846tik 1958ra– norabidea hautsi zuena. Ratzinger-en esanetan, aldiz, hausturarik gabeko jarraitasuna izan zen<sup>8</sup>.

Rahner-en ustez, “Kontzilioa abiapuntua izan zen, ez helmuga; sarrera, ez amaiera”<sup>9</sup>, “hasieraren hasiera” besterik ez<sup>10</sup>. Ratzinger-en ustez, berriz, ez da zilegi eta engainagarria da Kontzilioko dokumentuetan diseinaturik dagoena ez, baizik eta bestelako etorkizuna amestea. Arrazoiz dio Ratzinger-ek: “Rahner eta ni, puntu askotan eta amets anitzetan bat genduzen arren, teologia-ikuspegitik bi planeta ezberdinetan bizi ginen”<sup>11</sup>.

Esan gabe doa, Joan Paulo II.aren aitasantutza-aldian Ratzinger-en diagnostikoa gailendu zela Vatikanon eta, ondorioz, eliz hierarkia osoan eta erakunde ofizial guztietan. Ratzinger izan zen Joan Paulo II.aren teologoa eta inspiratzaile teorikoa. Eta gero, Erromako aulkian ondorengoa, gaur arte. Bere kontra-erreformak aurrera darrai.

## 6. Paradigma berri baten premia

Kontzilioa hasi zenetik –duela 50 urte–, mundua aldatu egin da, kultura aldatu egin da, politika eta ekonomia aldatu egin dira. Informazioa da gaurko munduan eragile nagusia. Baina informazioaren masa hain da ugaria eta globalizaturia, non dena lehen baino askoz konplexuago, ezegonkorrago eta ez-ziurrago bilakatu baita. Gauzarik egiazkoena eta zalantzarikgabeena da inor ez dela egiaren jabe. Ikuspegi guztiak partzialak eta erlatiboak direla da premisarik unibertsalena eta konpartituena. Erlitioak ez zeuden prestaturik erabateko aldaketa kultural horretarako, eta kristautasuna agian beste edozein baino gutxiago. Vatikanoko II. Kontzilioa ere Jainkoaren errebelazio osoaren egiazko lekuko bakar gisa mintzo da oraindik. Egia ez dio orain inori inposatu nahi –Konstantino enperadorearen garaitik (IV. m.) egin duen bezala–, hori ez, baina bera da izan egiaren jabe.

Vatikanoko II. Kontzilioa bi kultur aro desberdinen mugan kokatzen da, modernitatearen eta posmodernitatearen artean zangalatraba. Modernita-

<sup>8</sup> Ik. *Informe sobre la fe*, o.c.; *La sal sobre la tierra. Cristianismo e Iglesia católica ante el nuevo milenio. Una conversación con P. Seewald*, Ed. Palabra, Madrid 2005.

<sup>9</sup> K. In P. Imhof – H. Biallowons (arg.), *Karl Rahner. Im Gespräch*. I: 1964-1977, Kösel Verlag, Munich 1982, 42-43 or.; ik. K. Rahner, “El Concilio, nuevo comienzo”, in *Karl Rahner. La actualidad de su pensamiento*, Herder, Bartzelona 2004, 67-88 or.

<sup>10</sup> “El Concilio, nuevo comienzo”, l.c.

<sup>11</sup> J. Ratzinger, *Mi vida. Recuerdos (1927-1977)*, o.c., 126. or.

tearen erronkei erantzun nahi izan zien, baina beranduegi, beste garai bat atejoka baitzen jada. Eta harako hark esandakoa gertatu zitzaion: “Erantzunak aurkitu genituenerako, galderak aldatu zizkiguten”.

Ez dut esan nahi modernitatearen erronkei erantzun egokia ematera iritsi zenik. Bistan da ezetz. Modernitatea benetan onartu izan balu, posmodernitatea ere onartuko zukeen, lehenengoaren jarraipena baita bigarrena. Mendetako atzerapenaren ostean, abiapuntu zalantzati bat besterik ez zen izan, pausu bi aurrera, bat eta erdi atzera. Kontzilio osteko erreformei buruz ere gauza bera esan daiteke. Ez zuten eman espero zen fruiturik, baina ez zen izan erreformak aurreregi joan zirelako, atzeregi gelditu zirelako baizik, Mendebaldeko gizartea gero eta bizkorrago zihoan bitartean aro berrian aurrera.

Eta zer esan azken 30 urteetako kontra-erreformari buruz? Abiatutako bidea desegiten ari gara, gizartearen, kulturaren, historiaren kontrabidean, kontzilio osteko krisia aitzakia harturik. Baina erreforma-ahaleginak fruiturik eman ez bazuen, are gutxiago ari da ematen, eta are gutxiago emango du, Joan Paulo II.aren eta Benedikto XVI.aren kontra-erreformak. Gaztediaren Munduko Jardunaldi guztiak (Madrilgoa, kasu) oso engainagarriak dira, arrandia eta harrabots guztiak

gorabehera. Madrilen bertan etxebizitzaren hipoteka ordaindu ezin zutenak bankuen aginduz etxetik botatzen zituzten bitartean, banku horien eskutik eta krisialdiaren eragile nagusien-gandik dirutza lotsagarriak jaso zituzten Elizarik atzerakoienaren erakustaldia egiteko. Erakustaldia egin zuten, eta gero zer? Hurrengo erakustaldia prestatzen hasi... Non da gizartearen argi eta gatz, mundu berri baten legamia izan behar lukeen Eliza? Non da Ebanjelioarenugarra? Non da Jesusen berri on kontsolatzaile eta berritzailea? Non da Espirituaren mistika eraginkor eta eraldatzailea?

Erakunde autoritario eta patriarkal zurrunei, hizkuntza eta irudi iraungiei, doktrina zaharkituei, sineskizun sinesgaitzei, obsesio moral estuei atxikirik jarraitzen du eliz hierarkiak. Eta tamalgarrria da, zeren ebanjelioak eta Biblia osoa, Jesusen bizitza eta irakaspenak, iraganeko eta gaurko hainbat gizonezko eta emakume kristau, kristautasunaren historia osoa, bere itzal eta guzti, eta baita dogma guztiak ere, potentzialtasun eta gaitasunez gainezka baitaude. Oskol zaharrak lehertu egin behar du aldi oro, barruan daraman bizi berria ager eta gara dadin.

Hitzak eta irudiak berritzea, erakundeak, dogmak eta sineskizunak berrinterpretatzea eta askatasunez gaurkottzea... hori guztia ez da gauzarik garrantzizkoena, baina bai ezinbeste-

koa. Espirituaren arnasa eta sua, kontsolamendua eta adorea dira beharrezkoena. Baina kristau-hizkuntza eta erakunde guztiak gaurko paradigma berrira egokitzea eskatzen du horrek, inorentzat argi eta legamia izango badira.

Kristautasun tradizionala –eta Vatikanoko II. Kontzilioa bera ere bai– paradigma zaharrea txertaturik daude: *paradigma dualista* (Jainkoa-mundua, gorputza-arima, oraingo bizitza-geroko bizitza, denbora-eternitatea... bi elementu desberdin eta bereizgarri balira bezala), *paradigma antropozentrikoa* (gizakia kreazioaren eta unibertsoaren zentro eta gailur balitz bezala), *paradigma eklesiozentrikoa* (“Elizatik kanpo salbamenik ez” balego bezala), *paradigma jesuzentrikoa* (Nazaretoko Jesus Jainkoaren agerpen oso bakarra eta salbatzaile oso bakarra balitz bezala). Paradigma teologiko hori guztiz pitzatua dago, jarioak ditu nonahi eta ezingo zaio eutsi zirkulu marjinetan izan ezik.

Eliza katolikoak gaurko gizarteari zerbait onik esan eta ekarri badio, paradigma berria bereganatu beharra du nahitaez: *paradigma holistikoa* (ez dualista: guztia guztiarekin elkaturik, atomoen partikuletatik galaxietara), *paradigma dinamikoa* (ez estatikoa: dena aldatzen ari da, eboluzioak aurrera jarraitzen du, eta ez dakigu norantz), *paradigma ekologikoa* (ez antropozentrikoa: izaki guztiak, unibertso osoan,

erkidegoa osatzen dute, eta izaki bartzuk ez daude besteak baino “gorago” eta ez dira “duinago”), *paradigma pluralista* (erlijio bat ez da, berez, beste bat baino “egiazkoago”, ezta erlijioa erlijio-gabezia baino ere).

Hona zenbait aplikazio, adibide gisa:

- “Dogma” kontzeptua eta dogma guztiak errotik berrikusi eta berrinterpretatu behar dira, gaur zerbait ulergarri eta ongari esan ahal dezaten.

- Jainkoa Izaki goren, bereizi eta ahalguztidun gisa, munduan “kanpotik” eragiten duena eta nahi duenean “mirariak” egiten dituen bezala irudikatzen duen irudia gainditu behar da.

- Kristau-esklusibismoa –Jesus Jainkoaren agerpen bete bakarra eta salbatzaile oso bakarra bezala ulertzen duena– gainditu behar da, eta Jesusen “jainkotasuna” gizatasunaren (ontasunaren) errealizazio gisa ulertu.

- Eliz maila eta erakunde guztietan printzipio demokratikoak aplikatu behar dira.

- Emakumearen berdintasuna aitortu behar da behingoz bere ondorio guztietan.

- Arau moral guztiak, arau zehatz gisa, historikoak, erlatiboak eta aldako-

rrak direla onartu behar da; zehazki, sexualitatearekin loturiko planteamendu tradizional guztiak (dibortzioa, homosexualitatea...) nahiz biziarekin zerikusia dutenak (ikerketa genetikoa, ugalketa-metodoak, kontrazepzio-metodoak eta jaiotza-kontrola, abortua, eutanasia...) goitik behera berrikusi behar dira.

- Gizarte laiko baten oinarria, hots, aniztasunaren printzipioa onartu behar da bizikidetzako arlo publiko guztietan.

- Gaurko kulturaren sustrai-sustraiaren dauden ezjakintasuna, konplexutasuna eta ziurgabetasuna onartu behar dira arlo guztietan eta beraien ondorio nagusia, aniztasuna, eta beronen funtsezko eskakizuna: elkarriketa.

Inork ez daki, paradigma hau onartzen bada, etorkizuneko kristautasuna nolakoa izango den. Onartzen ez bada, ordea, bistakoa dirudi kristautasunaren etorkizuna, etorkizunik badu, sozialki eta kulturalki marjinala izango dela.

Zer esan, egoera honetan, Vatikanoko II. Kontzilioaz? Oraindik

izan dezake zer esan eta zer eman, baina baldintza batekin: dokumentuen esanahiaz eta letraz haratago, haien bulkadak eta arnasak gida dela Eliza katolikoa. Jerusalemgo III. Kontzilio bat beharko litzateke, erlijio eta kultura juduan sortutako kristau-mugimendua erlijio eta kultura grekora egokitzen saiatu zen Kontzilio hura bezalako zerbait, baina Kontzilio berrian gotzainek bakarrik hartzen badute parte eta begiraturik gaurko gotzainak nolakoak diren, berrikuntzarik ez liteke espero, alderantziz baizik, eta dagoenean uztea hobe.

Vatikanoko II. Kontzilioari leial izateko modu bat bakarra dago: luzatzea, haratago joatea. Eta gaur gaurkoz Eliz erakundean horretarako itxurarik ez dagoenez gero, onen-onena izango litzateke katoliko-pila handi batek jarraitzea Yves Congar teologoak Kontzilioaren aurretik nahiz ondoren gidatzen hartu zuen lema, nahiz eta horrek nahigabe handiak ekarri zizkion: "Nik tipi-tapa jarraitzen dut, Elizak aurrera egin dezan".